

ERTZAINTZA







EUSKARA

DOWN Araba
Asociación DOWN ARABA ISABEL ORBE Elkartea

aprendi Autismo Bizkaia
Somos Familia Gara

asafes

eragintza

ERTZAINTZA ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK

Gurea bezalako gizarte anitz batean eta giza eskubideak babesteko legeria betetzeko, Ertzaintzak kontuan izan behar ditu desgaitasuna duten pertsonen ezaugarriak eta premiak. Hori dela eta, ezagutu behar dira, eta jakin zelan artatu.

Labur esanda, desgaitasuna definitzen da zenbait pertsonek jarduera jakin batzuk gauzatzeko duten muga modura, gabezia fisiko, organiko, sentsorial, intelektual, psikiko edo askotariko baten ondorio izan daitekeena.

Triptiko hau Ertzaintzako profesionalei zuzenduta dago, desgaitasun intelektuala **(DIDP)** eta gaixotasun mentala **(GMDP)** duten pertsonen kolektiboarekin polizia-jardunbide egokiak ezagutu eta garatu ahal izateko.




AUTISMO-ESPEKTROAREN NAHASMENDUA (AEN)

Garrantzitsua da ikuspegi egokia izatea autismoa duten pertsonez. Ez dira agresiboak, ez antisozialak. Kontua da arazoak dituztela interakzio sozialerako, komunikatzeko, ulertzeko edo erabakitzeko. Hainbat gaitasun izan ditzakete, baina inoiz ez zaie tratatu behar umeei modura.

Zailtasun horiek pertsonaren bizitza guztian mantenduko dira. Ez da gaixotasun bat. Bizitzan egoteko modu bat da, gainerako biztaleena ez bezalakoa.

Bizitzaren etapa diferenteetan, zailtasun batzuk areagotu eta beste batzuk murriztuko dira. Pertsona batetik bestera, berriz, nabarmen aldatzen da autonomia eta independentzia-maila. Kasu guztiak desberdina dira, eta laguntza-premiak askotarikoak dira.


PREMIAK	ZER EGIN DEZAKEGU?
KOMUNIKAZIOA	
• Mututasuna	• Entzun laguntzaileari, baten batek laguntzen badio.
• Blokea daitezke, eta zailtasunak izan erantzuteko.	• Transmititu adorea eta onartu ahalegina
• Zailtasunak dituzte jasotako informazioa prozesatzeko. Baliteke ez ulertzea zer galdetzen zaien.	• Ez egin zentzu bio esaldirik, eta lasai hitz egin. • Egin galdera zehatzak, eta saihestu galdera irekiak, nahastea eragin dezaketenak
• Zailtasunak dituzte ulertzeko zer adierazten zaien/galdera konplexu egiten zaien.	
• Zailtasunak dituzte norbere ideiak adierazteko.	
• Hitz egiteko erritmo eta doinu bereziak.	• Ez epaitu negatiboki, eta ez interpretatu burlaka ari dela. • Ez erabili hizkera ironikoa.
• Hirugarren pertsonan kontakizuna.	
• Diskurtsoan, behin eta berriro galdetu edo erantzun dezakete.	• Ez erabili asmo biko adierazpenik. • Erabili hizkera positiboa, eta ez erabili era honetako esaldiak: "ez egin..."
• Zailtasunak elkarrizketaren haria segitzeko.	• Eman denbora erantzuteko.
• Kontakizunean, kontraesanak azal daitezke, baina ez dute adierazten gezurretan ari denik.	• Lagundu kontakizuna irudikatzen eta antolatzen.
• Zailtasunak dituzte animo-egoera adierazteko edo haren berri emateko	• Irudiak erabiltzea lagungarri izan daiteke animo-egoera ulertzeko.
GIZARTE-ELKARREKAGINA	
• Batzuetan, abilidade sozial desegokiez baliatzen dira. • Lar hurbiltzen dira beste pertsonara. • Kontaktu fisikoa errefusatzen dute. • Inpultsiboak dira gauzak adierazteko orduan. • Lar pasiboak. • Estereotipiak, hegazkadak, ...	• Elkar eragiteko egon daitezkeen aukerak ezagutu eta ulertu behar dira, eta portaera egokitu. • Kontuan izan behar da ezen intentzionaltzat jo daitezkeen portaera edo erronka batzuk inpultsiboak direla, eta ez direla ulertu behar intentzioz egindakotzat.
• Begiradei eusteko zailtasunak.	• Elkarrizketa mantendu behar da, alde batera utzita kontaktu bisuala.
• Sentikortasun emozionala eta segurtasun falta izan dezakete. • Zailtasunak dituzte inoren ñabardura emozionalak ulertzeko.	• Transmititu trankiltasuna.
• Inguruneak estresagarriak izan daitezke.	• Saiatzen dira ingurunetik ahalbait arinen irteten. • Tokiz aldatzerik ez badago, egokitu ingurunea lasaitasuna transmititzeko.



DOWN SINDROMEA (DS)

EGOERA	PAUTAK
ORIENTAZIORIK GABE	**Jarraibide orokorra** • Ahots lasaigarria, esaldi laburrak eta hizkera erraza, poliziako teknizismorik gabea. • Kontuan izan zailtasun hauek: denbora eta espazio-nozioak, distantziak...
	Jarraibide espezifikoa • Agurtu eta norbere burua aurkeztu. • Egin era honetako galderak: " badadizu non zauden?, zelan heldu zara hona?" • Erantzuten ez badu eta gehiago blokeatzen bada, azaldu egoera, galdetu nori deitu behar zaion eta eskatu NANa (fotokopia eramaten dute).
INFORMAZIOA BILTZEA	**Elkarrizketatu aurretik** • Bildu aurreko informazioa: zer adierazi zien biktimak delituaren inguruabarrei buruz senideei eta/edo ingurukoei. • Jakin zein diren gertakarien aurreko eta osteko ibilbideak. • Jakin ea nahita jokatu zuen ala derrigortuta. • Jakin ea haren bizimodua aldatu den gertakariaren ostean.
	Elkarrizketatu bitartean • Izan kontuan kontakizunaren ezaugarriak (kontraesanak, isiluneak...). • Entzun aktiboki segurtasuna eragiteko (enpatia, errepikatu, laburbildu...). • Aukeratu galdera irekiak, eta ez erantzun itxikoak. Adibidez: "bai" edo "ez". • Egokitu komunikazio-sistema (soinuak, keinuak...). • Erabili hizkera erraz eta ulergarria. • Kontuan izan nolakoa den hitzik gabeko hizkuntza. • Ezarri erlazio bat emozionaletik.
	Elkarrizketatu ostean • Birpasatu deklarazioa eta egiaztatu dena dagoela ondo dokumentatuta. Utzi berari ekarpenak egiten edo zuzentzen. • Eman ezkerrak egindako esfortzuagatik eta laguntzeagatik. • Eskaini bideren bat harremanetan jartzeko elkarrizketatu duenarekin.

EBASKETA EDO LAPURRETAREN BIKTIMA EDO EGILEA	**Kontuan hartu beharrekoak** • Beharbada ez dute ulertzen "lapurtu" kontzeptua. Uler dezakete gauzak maileguan hartuko balira modura, eta ez dute asmo txarrik. • Ez dute ulertzen diruaren balioa, eta ez dute eramaten dirurik aldean. • Lapurreten biktima potentzialak dira, zeren ahultzat edo defentsagabetzat jotzen dituzte.
	Egilea • Agurtu eta aurkeztu norbere burua ahots lasaigarriaz. • Azaldu erraz-erraz zergatik dauden poliziak, eta zein den jarraitu beharreko protokoloa. • Eman denbora azaltzeko zer gertatu den, eta egin galdera irekiak. • Transmititu konfiantza, era honetako esaldiekin: "Oso ondo ari zara". • Azaldu geratutakoa ez dela zuzena. • Azaldu argi eta garbi eta erraz-erraz zergatik garraitatu behar den polizia-ibilgailuan, garraiatu behar bada.
	Biktima • Bildu aurreko informazioa: zer adierazi zien biktimak delituaren inguruabarrei buruz senideei eta/edo ingurukoei. • Jakin zein diren gertakarien aurreko eta osteko ibilbideak. • Jakin ea nahita jokatu zuen ala derrigortuta. • Jakin ea haren bizimodua aldatu den gertakariaren ostean.
SEXU-ABUSUA ETA GENERO-INDARKERIA	**Kontuan hartu beharrekoak** • Ahulak dira edozein abusu-motaren aurrean. Baliteke ez konturatzea biktima direnik, eta ez jakitea egoerari aurre egiten edo gertatutakoaren berri ematen. • Desgaitasunik ez duten emakumeen aldean, desgaitasuna dutenek biolentzia fisiko, psikologiko edo sexual bikoitza jasaten dute.
	Genero-indarkeria • Eskaini laguntza mediko eta psikologoa; baita gainerako lagutza-zerbitzu guztiak ere. • Jakinarazi zer prozedura jarraitu behar den. • Behar izanez gero, eskaini konpainia.
	Sexu-abusua adieraziz gero • Fidatu testigantzaren egiazkotasunaz, eta ez errepikarazi beharrezkoa ez bada. • Eskaini baliabide desberdinak aditzera emateko zer gertatu den (marrazkiak, argazkia, idazteko aukera, ...).
BESTE INTZIDENTE-MOTA BAT	• Agurtu eta aurkeztu norbere burua ahots lasaigarriaz. • Azaldu erraz-erraz zergatik dauden poliziak, eta zein den jarraitu beharreko protokoloa. • Eman denbora azaltzeko zer gertatu den, eta egin galdera irekiak. • Transmititu konfiantza, era honetako esaldiekin: "Oso ondo ari zara". • Azaldu argi eta garbi eta erraz-erraz zergatik garraiatu behar den anbulantzian edo polizia-ibilgailuan.



GAIXOTASUN MENTALA

Barnean hartzen ditu hainbat diagnostiko psikiatriko, zailtasun larriak eragiten dutenak funtzionamendu pertsonal eta sozialean, eta hura okertzen dutenak.

Poliziak jardun aurretik, mentalki eta jarreraz agentea prestatu behar da agentea, alerta-egoera eta lasaitasuna konbinatuz. Irizpide horietan oinarrituta, pertsonarekin elkarreraginean arituko den agentea hautatzea.

Poliziaren uniformea eta ibilgailua ikur estresagarriak izan daitezke. Beraz, gomendatzen da uniformerik gabeko baliabideak erabiltzeko.

Pertsonarekin harremanetan jartzerakoan, gomendatzen da:

- Bilatzea toki lasai bat.
- Ez izatea kontaktu fisikorik, eta errespetatzea pertsonak markatzen duen bizi-espazioa.
- Jartzea haren altueran.
- Norbere burua aurkeztea, eta egoera azaltzea.
- Entzumen aktiboaz baliatzea.
- Ez egitea promesa faltsurik.
- Argi eta garbi eta erraz-erraz azaltzean nola jokatuko den, baina saihestuz haurrak bezala tratatzea.

Pertsonaren erantzunak askotarikoak izan daitezke (asko edo gutxi hitz egin). Amaiera arte jarrera enpatikoa izatea komeni da.

EGOERA	PAUTAK
NORBERE BORONDATEAREN KONTRA SARTZEA ZENTRO BATEAN, MODU PROGRAMATUAN	• Zerbitzu psikiatrikoak eskatu eta antolatuko du nola sartu, eta pertsonari berari eta haren familiari jakinaraziko dio. • Pertsonak aurka eginez gero, Ertzaintzak erraztaile modura jokatuko du.
FAMILIAK ESKATUTA, NORBERE BORONDATEAREN KONTRA SARTZEA ZENTRO BATEAN	• Pertsonak uko egiten dio osasun-zerbitzuetara joateari. • Familiak larrialdi-zerbitzuei abisatuko die, eta haiek Ertzaintzari. Ertzaintzak, berriz, lagundu egingo du hura osasun mentaleko zerbitzuetara eroaten.
ARRISKU-EGOERA DELA ETA, PERTSONA BERE BORONDATEAREN AURKA SARTZEA ZENTRO BATEAN.	• Gaixotasun mentala dela eta, krisialdi akutuen ebidentziak daude. • Larrialdi-zerbitzuek abisua jaso, eta Ertzaintzak jardungo du aurreko kasuetan bezala.

EGOERA	PAUTAK
DELIRIO- EDO AGRESIO-BIKTIMA EDO DESORIEN-TAZIO-EGOEREN BIKTIMA	• Lasaitu, eta ez utzi bakarrik pertsona hori. • Esku-hartzen hasten den unetik bertatik bilatu behar da erreferentzia-pertsona batek laguntzea. • Sintomatologia psikikoko ebidentziarik egonez gero. hasieratik emango zaio lehen-tasuna egonkortzeari. • Hasieratik jarrera enpatikoa izatea, babesa erakutsiz.
HALUZINAZIO-KRISIALDIA	• Izan jarrera akritikoa kontakizunaren aurrean. • Ez sustatu aluzinazioa, eta ez jarri pertsona errealitatearen aurrez aurre. • Sineskortasunez entzutea kontakizuna, enpatia erakutsiz. • Saiatu distraitzen beste gai interesgarri batzuekin, lasaitasuna transmititzeko.
DELIRIO-KRISIALDIA	• Izan jarrera akritikoa. • Saiatu ez sustatzen delirioa, eta jokatu kontakizuna sinesgarria balitz bezala. • Saiatu distraitzen beste gai interesgarri batzuekin, lasaitasuna transmititzeko.
ERASOAK	• Azaldu seguru eta trankil. • Saiatu lortzen estimulu gutxiko giroa, eta altzaririk gabea. • Astiro-astiro hurbildu. • Galdetu haserretuko ote den eta zergatik. • Ez aipatu aukerarik dagoenik ospitaleratzeko. • Pertsona lasaitzeko, jo profesionalengana edo gaitasuna izan eta konfiantza eragiten duten senideengana. • Fisikoki eutsi behar izanez gero, segitu lasaitasuna transmititzen.
GERTAKARI MANIAKO AKUTUAK	• Komunikatzerik ez badago, eutsi. • Jarraitu eraso-kasuetarako emandako jarraibideei.
SUIZIDIO-ARRISKUA	• Lasaitu, eta ez utzi bakarrik pertsona hori. • Serio hartu egoera, eta ez minimizatu. • Emozioak askatzeko, egin galdera irekiak, eta erakutsi laguntza eta interesa konta-kizunarekiko. • Irabazi denbora, hizketan segituz harik eta gertakaria neutralizatu arte.

INTZIDENTEAN ZEHAR KONTUAN IZAN BEHARREKO GOMENDIOAK

Esku-hartze sanitarioa beharrezkoa ez denean: (desorientazioa, lapurreta, gatazkak beste pertsona batzuekin, ...)	• Bilatu erreferentzia-pertsonen laguntza, eta galdetu laguntza-senide edo profesionalik dagoen.
Esku-hartze sanitarioa beharrezkoa denean: (Krisialdi larriak, aluzinazioak, lapurretak, delirioak, gertakari maniako akutuak, sexu-abusuko gertakarietan, ...)	• Bilatu erreferentzia-pertsonak, eta abisatu larrialdietako psikiatria-zerbitzuei.

ERTZAINTZA

DOWN Araba
Asociación DOWN ARABA ISABEL ORBE Elkartea

apnabi Autismo Bizkaia
Somos Familia Gara

asafes

eragintza